

**DENBORA GEHIEGI GENE-
RAMAN TALDE HONEN
INGURUAN EZER JAKIN BARIK.
ORAIN, 'SECOND HANDED'
KALERATU ZUTENETIK BOST URTE
IGARO DIRENEAN, LAN BERRI BATE-
KIN ETORRI ZAIZKIGU BUELTAN. GAIZ-
KA INSUNZAREKIN HITZ EGITEKO
AUKERA IZAN DUGU 'TRYING WINGS
ON ROOTS' DISKOAREN INGURUAN.**

Bost urte dira diskoa kaleratu zenute-
netik. Zertan aritu zarete denbora
guzti honetan?

Badirudi epe honetan beste disko bat (edo bi!) kaleratzeko denbora izan dugula, ezta? Atzera begiratu, *Some Lonely Hands*...etik *Second Handed*-erako bidea oso sasoi bizi batean burutu zela esan genezake; lehen lanarekin kontzertuak ematen genituen bitartean bigarrenaren prestaketarekin geunden dagoeneko. Garai honen eragina oso argia da *Second Handed* diskoan... oso lan kosmopolita, eklektikoa. Behin aro hau bukatutzat emanda, Audiencen eritmoa guztiz aldatzen da, baina ez pentsa geldi egon garenik: taldearen ohiko lanaz gain (entseguak, kanta berriak, etab.), ibilbidean egindako lagun ugariaren egitasmoetan parte hartu dugu (Ainara LeGardon, Dei Suoni, Julio de la Rosa, Markos Untzeta). Young Talent Show ere hor dago, eta nortasun propioz garatu izan da denboraldi honetan...

Arazorik ez hortaz...

Aipatu beharra dago borondatez kanpoko astinduren bat edo beste ere izan dugula. Entsegu lokalik gabe geratu ginen, adibidez... eta diskoaren ekoizpenean ere traba pare bat izan ditugu. Dena den, *Trying Wings on Roots* den bezalakoa bada, egoera guzti hauen ondorioz da. Sortze prozesuan zehar adibidez, taldearen baitan beste lanetan

izan ez dugun partaidetza maila lortu dugu; eta hausnarketa nabaria da diskoa bere osotasunean aztertuz gero. Izan ere, aipatzen dituzun bost urte hauen etenaldia ematen bada ere, ez deritzogu beste bi lanekiko inolako koherentzia faltarik dagoenik... alderantziz, inork trilogia bezala ere deskriba litzake.

Young Talent Showk orduan, zuen talde paraleloak, denbora izan du taula gainean aritzeko...

Bai, Young Talent Show-en ibilbidea Audienceren egoerari loturik dago eta hainbeste denboran taula gainera igo gabe egon izanak gogoak piztu zizkigun Young Talent Showekin kontzertu batzuk ematera. Horrek ez du esan nahi Audience zuzenekoak ematen hasten denean Young Talent Showk ez duela joko. Argi dagoena zera da, egun berean ezin izango dira bi taldeak toki ezberdinetan aritu...

Diskoa aspalditik grabatua zegoela dirudi, zergatik itxaron duzue urtebete argitaratzeko?

Bai, diskoa 2006ko udaran grabatu genuen. Hala ere, nahasketak luzatu egin ziren eta masterizazioa 2007ko martxoan bukatu genuen. Honen ondorioz, diskoa udaran plazaratzeko prest zegoen, baina ez zitzaigun garai egokia iruditzen. Nahia go izan dugu irail bukaerara itxaron...

Zertan datza Glokal Items egitasmoa (Noizpop-ekin batera diskoa argitaratzen duena)?

Trying Wings on Roots lanean sinisten dugun lagun talde batek sortu genuen Glokal Items (Audiencen kideak ekimenaren parte gara beraz). Diskoa baldintza egokietan kaleratzearen eginkizunarekin jaiotzen da elkarte, eta edizioa Noizpop-ekin banatzea adosten dugu, diskoaren azalean ikus daitekeen bezala. Azken finean, gaur egun talde edo diskoetxeek duten zama astuna kontutan hartuz, hauek bere gain hartu behar ez litzaketan zeregin edo gastuetan babes ematea da Glokal-en behin-behineko betebeharra. Dena den, oso gaztea da egitasmo hau... batek daki etorkizunean zertan bihurtzen den! Argi dagoena da aurrera jarraitzeko bokazioa dugula, ez dela Audienceren lan honekin bukatuko; beraz, beste inork bere burua batzeko asmoa balu edo proposamen interesgarri bat edukitzekotan, atek zabal-zabalik daude.

**Oraingo honetan ildo beretik jarraitzen duzuela dirudi, "post-
ez-dakit-zer" horri jarraituz, baina musikaren erroetan bilatuz...**

Nabaria da disko honetako abestiek atzerantz begiratzan dutela eta estilo aldetik askoz ere definituagoak edo

"definigarriagoak" direla. Rockaren sustraiei keinu egiten die, zuk esan bezala musikaren erroetan bilatuz edo erroak bilatzearen premia azalduz.

AEBetako hegoaldeko arima inoiz baino argiago ageri da *Trying Wings on Roots* honetan...

Ez dugu honetan pentsatu, nahiz eta inoiz holakorik esan diguten gure musikaren inguruan. Batez ere ez dugu horretan pentsatzen abesti bat egiteko orduan. Bostok dugu kultura musikal zabala eta ez gara gutako bat ere "Southern rock" delako horretan adituak. Beti bezala, maite ditugu Bob Dylan, Neil Young, REM, David Bowie edo Mikel Laboa. Momenturo abestiak sortzen ari gara eta oraingoan abesti hauen momentua izan da.

Erroetan bilatzearena diskoaren izenburuan ere suma daiteke...

Diskoaren izenburua kontraesan handi bati edo txiki askori eginkizun erreferentzia zuzena da. Kontraesana da gu bostok horren urruti egonda talde bat martxan mantentzeko gogo geldiezina izatea? Klasikoa denaren artean arriskua eta berrikuntza bilatzea edo aurkitzea? Ezaguna den horretaz baliatzea ezagutzen ez ditugun tokietara iristeko? Lehen, denok gertu geundenean, abestiak oso iheskorak ziren, bidaia batean sartzen ginen batzuetan, ia jarrai ezinak ziren bideak sortzen ziren. Orain urrunduta egon garenean, bidaia fisikoan, agian abestiak egin ditugu hurbiltzeko.

In a small Town ironiaz beteriko abestia izan daiteke. Gernika Kentuckyko herri txiki bat bezala ikusten al duzue?

Gu herri txiki batetan jaiotzen gara, gustuko ditugu herri txikiak. Gernika da gure jaioterria, bertan hezi gara. Abesti horrek hori dio bakarrik; egia soil bat modu solean (mundu guztiak ulertzeko moduan, altu, eta garbi) esaten duen abestia da. Batzuentzako herri txiki batean jaiotzen izanak alde onak baino ez ditu izango, beste batzuentzako guztiz kontrakoa, jende askok horretan pentsatu ere egin gabe ekingo dio, edo izango dira beti Kentuckyko herri txiki batean bizi ez direlako penatan egongo direnak... Baina azken finean abesti hori zozter bada, abesti bateratzaile bat da. Lehen esan bezala, denok ulertu eta konpartitzeko modukoa, herri txiki askotan abestuko duguna.

Everybody's got a band abestiaren hitzek ere mezu argia ematen dute...

Audienceren beste abesti batzuetan bezala, hitzek, gauza orokorretatik gertuko gauzetara garatzen dira. Zer da talde bat besteengandik bereizten duena? Eta aldi berean, zer da lagun min bat ezagun batetik bereizten duena? Hortik aurrera, bakoitzak bere interpretazioa egin dezake. Hori bai, gako ez datza besteengandik desberdintze-

ko talde bat sortzean, baizik eta zerbaiten parte sentitzearen garrantzian. Denok daukagu zerbait edo norbait, ezta?

Aurrekoan euskarazko abesti bat egon zen. Oraingoan ez. Agian abesti berriek ingelesez sinesgarritasun handiagoa izan ahal dute, edo alderantziz, ez diozue hizkuntzari euskal entzuleak eman diezaioketen garrantzia ematen?

Aurrekoan euskarazko abesti bat "sortu zen", guretzako era ez ohikoan gainera. Hau da, lehenago letra zegoen, gero biolinaren konponketak gertatu, eta azkenik abestia osatu genuen. Uste dut nahiz eta ingelesez abestu nabaritzen dela Euskal Herriko herri euskaldun

batekoak gara, eta badakigu gure hizkuntza zein egoeratan dagoen; gu ere euskal entzuleak gara. Horregatik abesti bat egitekoan euskara beti dago presente... noizbait aterako da.

Ager kanpoan bizi da. Nola egingo duzue zuzenekoetan aritzeko?

Egoera pertsonal hauek ez ditugu inola ere arazo bezala ikusten... aberasgarriak dira oso. Lehenago ere bizi izan ditugu antzerako egoerak, eta beti onik irten gara. Gainera, aipatzen dituzun kasu zehatz honek ikusmira atzerrian ere izateko aukera ematen digu. Gu denok ez gauden kontzertuak ematea ere posible da, beti ere taldeak bere izaera galtzen ez duen neurrian. Inoiz egin izan dugu eta positiboa izan da... kontzertu bezala interesgarria eta ikasgai oso ona guretzat.



TESTUA XABIER DONCEL
+ www.noizpop.com

AUDIENCE
KONTRADIKZIOAK HERRI TXIKIETAN